

2008ko IRAILAREN 22ko EZ OHIKO UDALBATZARRA
PLENO EXTRAORDINARIO DE 22 DE SEPTIEMBRE DE 2008

BERTARATUAK / ASISTEN:

ALKATEA / ALCALDE: JOSU IRATZOKI AGIRRE

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

AMAYA TELLECHEA INDA, RAMON ELGORRIAGA ERRANDONEA, AINTZANE ARTOLA URRUTIA, ALFREDO GOYENECHÉ INÉS, RAFAEL ECHEVERRIA PERURENA, SANTIAGO ALZUGUREN MATXIKOTE, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, M^a SOL MARGARITA TABERNA IRAZOQUI, JON ABRIL OLAETXEA.

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:

HELENA SANTESTEBAN GUELBENZU (oporretan/ vacaciones),

Tokia: BERAko Herriko Etxea.

Eguna: 2008-09-22

Ordua: 20:30

Bilera-mota: ez ohikoa, 1. deialdia

Lugar: Casa Consistorial de BERA.

Día: 22-09-2008

Hora: 20:30

Tipo sesión: ordinaria, 1^a convocatoria.

TRATATZEKO GAIK:

1.- MOZIOA: EAE-ANV-REN ILEGALIZAZIOA.

Alkateak gai zerrendan aurkeztutako idatzia irakurri du, ondoko testua izanik:

ASUNTOS A TRATAR:

1.- MOCIÓN: ILEGALIZACIÓN DE EAE-ANV.

El Alcalde lee el escrito incluido en el orden del día, siendo el texto el siguiente:

“-----SALBUESPEN EGOERARI STOP

Espainiar estatuak bere errepresio bideari jarraikiz tribunal gorenaren bitartez EAE-ANV alderdia ilegalizatzeko erabakia hartu du. Erabaki honek garbi uzten du Euskal Herrian bizi dugun salbuespen egoera eta demokrazia falta izugarria. Euskaldunon eskubideak egunero zapaltzen dizkigute, funtsik gabe jendea espetxeratzen dute zigor izugarriak ezarriz, ez dago adierazpen askatasunik, ez manifestatzeko eskubiderik, ez politikoki antolatzekorik.

Euskal Herriaren eskubideen kontrako bertze kolpe bat da erabaki hau, bertan dugun arazo politikoa moldatzeko atzerapauso garbia dena. Herriak konponbidea eskatzen du, gure etorkizuna

libreki erabaki nahi dugu. Ukazioa, inposizioa, errepresioa, konstituzioa. Guztien gaineratik herriari hitza ematea, herriak aukera politiko guztien artean, independentzia barne, erabaki dezan, horretan datza nozitzen dugun gatazkaren konponbidea. Marko berri bat behar du gure herriak, marko demokratiko bat.

Euskal herri osoan ematen den salbuespen egoera hau salatzeko eta EAE-ANV-ko hautetsien eskubideak errespetatzeko udalak puntu hauek onartzea proposatzen dugu.

Mozioaren puntuak :

- 1) *Udal honek indar politiko guztiek Euskal Herriko bizitza politiko, sozial eta kulturalean berdintasun baldintzetan parte hartzeko eskubidea eta beharra dutela azaldu nahi du.*
- 2) *Udal honek aukera politikoen aniztasuna errespetatu behar dela azaldu nahi du. Honela, alderdi politikoen ilegalizatzeko estrategia antzua eta antidemokratikoa salatzen du. Normaltasun politikitik urruntzen gaitu eta gatazka politikoa elikatzen du.*
- 3) *Udal honek azaldu nahi du ilegalizazio estrategia Euskal Herriaren eskubideen aurkako eraso bortitza dela eta independentzia helburu duen herri-proiektua indargabetzea helburu duela.*
- 4) *Udal orok herritarren borondatea behar du oinarri, hortaz, herritarren borondatearen aurka egiten duten lege, epai edo erabakiei ez die inolako zilegitasunik aitortzen.*
- 5) *Udal honek herritarrek aukeraturiko EAE-ANVko zinegotziak eragile eta mintzakide politiko gisa onartzen ditu.*
- 6) *Udal honek EAE-ANVko zinegotzien partehartze politiko osoa ziurtatu ahal izateko konpromisoak hartuko ditu.*
- 7) *Udal honek euskal gizarteak nahi eta eskatzen duen benetako aldaketa politikoa, autodeterminazio eta lurraldetasun eskubideetan oinarrituko den aldaketa, gauza dadin bere ekarpena egiteko prest dagoela adierazi nahi du.*
- 8) *Udal honek, alderdi interesen gaineratik, zazpi herrialdeetako euskal herritarrok Euskal Herriaren etorkizunaz erabakitzeko eskubidea ahalbideratuko duen marko demokratikoren alde lan egiteko konpromisoa hartzen du.*
- 9) *Udal honek ilegalizazio estrategia salatzeko hurrengo osteguna 25 arratsaldeko 8tan "salbuespen egoerari stop" lelopean elkarretaratze bat egiteko deia luzatzen du eta mobilizazio horretan herritarrek parte har dezaten gonbitea luzatzen du.*
- 10) *Onartutakoa herritarrei zein komunikabideei helaraziko zaie-----"*

M^o Sol Tabernak:

Betiko moduan egin du, inorekin kontatu gabe, deialdia luzatu, eskatu dute bilera gibelteza eta ez du onartu beraz emendakina aurkeztu behar dute.

Alkateak:

Deialdia egin du berak haien ukituak direlako eta ez zirelako ados jarriko. Nahi dute bere mozioa lehenbiziko bozkatu eta gero emendakina.

Idazkariari galdetu diote emendakinaren prozedura zein den, berak zera azaldu du: Askotan azaldu du gaia eta bere ustez, nahiz

M^a Sol Taberna:

Se ha actuado como siempre, sin contar con nadie se ha hecho la convocatoria, han pedido retrasar la sesión y no se ha aceptado por lo tanto van a presentar una enmienda.

Alcalde:

La convocatoria la ha hecho porque ellos son los afectados y no se pondrían de acuerdo. Quiere que se vote primero la moción y luego la enmienda.

Se le pregunta a la secretaria cual es el procedimiento de las enmiendas y explica lo siguiente:

eta arautegiak deus ere ez erran, lehenbiziko emendakinak bozkatzan dira bere definiziotik horrela delako eta, kasualitatez, toki guztietan horrela egiten delako. Nahiz logika nahiz argitasun eta ziurtasun juridikoaren aldetik horrela iruditzen zaio, bestela kontraesanak sortzen ahal dira. Hala ere, arautua ez denez Alkateari dagokio bilera zuzentzea.

Alkateak: Lehenbiziko bozkatu da proposamena eta gero emendakina.

Jon Abrilek: Ez dago ados prozedurarekin.

Gai zerrendan sartutako idatzia bozkatu ondoren honako emaitza sortu da:

4 boto alde (Alkatea eta hiru zinegotziak) eta 6 aurka (EA, EAJ-PNV eta Aralar). Beraz proposamena ez da onartu

Segidan, Santiago Alzuguren, EA, EAJ-PNV eta Aralarrek aurkeztu duten emendakina irakurri du.

Botazioa egina, 6 boto alde (EA, EAJ-PNV eta Aralar) eta 4 abstentzio (Alkatea eta beste hiru zinegotziak). Beraz, emendakina onartu da, ondoko testua delarik:

“-----Berako EA, EAJ eta Aralar taldeek ondokoa agertu nahi dute:

- 1. Euskal Herrian etengabekoak direla giza eskubideen kontrako urraketak. Horien lekuko dira azken egunotan Gasteiz eta Ondarroan, eta gaur berean Santoñan izan diren atentatuak, non pertsona bat hil den, eta beste hainbat zaurituak gertatu diren. Giza eskubideen urraketa sail**

Ya lo ha explicado muchas veces y a su modo de ver aunque la normativa no dice nada las enmiendas se votan primero por la propia definición de la enmienda y, casualmente, así se hace en todos los sitios. Le parece que es más lógico y más claro y seguro jurídicamente, de lo contrario pueden producirse contradicciones. De todos modos, como no está regulado al Alcalde le corresponde dirigir el desarrollo de la sesión.

Alcalde: Primero se votará la propuesta y luego la enmienda.

Jon Abril: No está de acuerdo con el procedimiento.

Sometido a votación el escrito incluido en el orden del día resulta lo siguiente:

4 votos a favor (Alcalde y los otros tres concejales) y 6 en contra (EA, EAJ-PNV y Aralar). Por lo que no se aprueba la propuesta.

Seguidamente, Santiago Alzuguren lee la enmienda presentada por EA, EAJ-PNV y Aralar.

Sometida a votación resulta 6 votos a favor (EA, EAJ-PNV y Aralar) y 4 abstenciones (Alcalde y los otros tres concejales). Por lo que se aprueba la enmienda presentada, siendo el texto el siguiente:

“----- Los grupos municipales de EA, EAJ-PNV y Aralar del Ayuntamiento de Bera queremos mostrar lo siguiente:

- 1. Que en Euskal Herria la vulneración de derechos humanos es continua. Prueba de ello son los atentados perpetrados estos últimos días en Gasteiz y Ondarroa, y el asesinato de una persona hoy en Santoña, así como de varios heridos. En esta larga lista de conculcación de derechos se incluye,**

luze horretan ere daude, besteren artean, EAE-ANV eta EHAK alderdi politikoak eta Amnistiaren Aldeko Mugimendua legez kanpo uztea.

2. Urraketa horien guztien kontraktasun jarrera irmoa agertzen dugu, eta Euskal Herriak, zein euskal herritarrek etengabe eskatzen duten bakea eta normalizazio politikoa lortzeko ahalegin berezia egin beharrean gara guztiok.
3. ETari eskatzen diogu armak behin betirako utzi ditzala eta euskal herritarren borondateari ez diezaiola entzungor egin.
4. Auzitegi Gorenak EAE-ANV eta EHAK legez kanpo uzteko hartutako erabakia guztiz deitoragarria dela irizten diogu, eta pertsona guztien zein talde guztien eskubide zibil eta politikoak errespetatu ditzala eskatzen dugu. Bi alderdi horiek beren botuekin lortua dute politikan jarduteko zilegitasun osoa.
5. Zinegotzi guztien eskubide guztiak errespetatuak eta bermatuak izan daitezen lan egiteko konpromisoa hartzen dugu.”-----

Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 20:50etan.

O.E. ALKATEA/ V.B. EL ALCALDE
Josu Irtzoki Agirre

así mismo, la ilegalización de los partidos políticos ANV y EHAK, así como del Movimiento pro Amnistía.

2. Mostramos nuestra más enérgica repulsa a todos esos actos, y consideramos que debemos de realizar un gran esfuerzo para conseguir la pacificación y normalización política que tanto requiere Euskal Herria, como el conjunto de la ciudadanía.
3. Exigimos a ETA el cese unilateral y definitivo de las armas, y que no haga oídos sordos de la voluntad de la sociedad vasca.
4. Mostramos nuestro total desacuerdo con la sentencia del Tribunal Supremo por el que ilegaliza las formaciones ANV y EHAK, por la merma de los derechos civiles y políticos que para esta organización y las personas que la componen o han votado ésta supone. La legitimación de estas formaciones para su actividad política está lo suficientemente justificada con los votos obtenidos.
5. Trabajaremos para garantizar los derechos de todos los cargos electos, especialmente de los afectados por dicha sentencia.-----“

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 20:50 horas.

IDAZKARIA/ LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta